

SISTEMA EKONOMIKOAREN BIKOIZTASUNA ETA PREZIO- -KONTROLERAKO TEORIA BAT

Joseba Tobar - Arbulu

UPVko Irakaslea

**"Erraza da jadanik finkaturik
dauden prezioak finkatzea."**

John Kenneth Galbraith

Edozein gizarte industrialdutan agertzen den ekonomiaren dualtasuna hartu behar da kontutan inflazioa geldierazteko. Hori dela eta, guztiz antolaturik dagoen sektorean, hain zuzen ere enpresa erraldoien pean dagoen ia ekonomiaren erdian, prezioen kontrolak dira inflazioari aurre egiteko hartu behar den neurririk garrantzitsuenetariko bat.

Nahiz eta ekonomi-zientziaren literaturan oso urri izan kontrolen arazoari buruzko eztabaida, Bigarren Mundu-gerran prezio-kontrolak erabat onartu ziren, ez bakarrik inflazioa ezabatzeko baizik eta baliabideak berak erabat edo partzialki mobilizatzeko.

Iritzi sendoak

Jarraian agertuko diren iritziok zenbait saio berezi behar dute berorien argudiatzerako. Halaz ere, nola beste toki batzutan ukiturik izan diren, tesi antzera agertzen dira. Irakurleak segituan dagoen bibliografi apurrera jo lezake argitasun bila.

- (a) Ekonomiaren plangintza osoak, burokratikoak eta zentralista berau, porrot egin du. Stalinez gero, Sobietar Batasunetik zetorren ereduak ez du funtzionatzen, egun Gorbachev-ek berak aldarrikatzen duen bezala¹. Ikus Gorbachev (1987) eta Aganbegyan (1988). Alderdi bakarrek plangintza zentralari buruzko kritika zorrotza, eta zuzena gure ustez, Alec Nove-k egin du (1983).
- (b) Kapitalismoa aro berri batean bizi da non korporazioek izugarriko boterea bait daukate. Baieztapen honetaz, ikus Baran (1957), Baran eta Sweezy (1966), Galbraith (1967,1973), Herman (1981) eta Tsuru (1961).
- (c) Aro berri horretan, langilegoa bitan banatzen da (Bowles eta Edwards 1985), Gordon et al. 1982 eta Galbraith (1973). Batean sindikatu handi eta sendoak daude; bestean, berriz, sindikatu tipi eta ahulak eta sindikatu gabekoak.
- (d) Marxek bakarrik proiektu bati eman zion hasiera. Gaurko eginkizuna zera da, Marxek urratutako bideari

jarraitzea, berak ezagutu ez zituen aldaketa sozial eta ekonomikoak kontutan hartuz.

- (e) Euskal Herria ez da Hirugarren Munduan kokatzen den herria. Ez ekonomiaz, ez politikaz, ez kulturaz. Europan gaude, Europa industrialduan. Euskadik bere subiranotasuna behar du beste herriekiko harremanak, ez bakarrik Frantzia eta/edo Espainiarekin, aukera ditzan.

Sarrera

Saio honetan proposatzen den tesia zera da, alegia, edozein ekonomia modernotako guztiz antolaturik dagoen sektorean, hain zuzen ere enpresa erraldoien pean dagoenean, hots, ia ekonomiaren erdian, alokairuen eta prezioen kontrolak direla inflazioa geldierazteko hartu behar diren neurririk garrantzitsuenetarikoa. Beroriek ez dira irtenbide osoa, baizik eta estrategia oso baten alde. (Estrategia osoak zera dauka barne: politika fiskal murriztatua –bereziki armagintzan–, bankuetatik maileguen mugak, kontsumitzailearen kredituan murrizketa zuzena, eta energiaren kontserbazio efektiboa. Tobar-Arbulu 1988.)

Ekonomi zientziaren literaturan oso urri izan da kontrolen arazoari buruzko eztabaida. Halaz ere, Bigarren Mundu-Gerran prezio eta alokairuen kontrolak erabat onarturik izan ziren. Kontrolak proposatu ziren ez bakarrik inflazioa geldierazteko baizik eta

baliabideak berak erabat edo partzialki mobilizatzeko. Baina prezio-kontrolak, *qua* prezio-kontrolak, ez dauka lekurik ez akademian ez testuliburuetan. Aitzitik, ezinezko, lilurazko, zapuztaile eta lerdotzat ikusi izan da, inozo eta ikasigabekoentzako beita edo amuzkia balitz bezala.

Bigarren Mundu-Gerran, halere, parte hartu zuten guztiek horrelako kontrolak aukeratu zituzten, ez kontu handiko deliberamendu aproposaren ondoren, baizik eta, une hartan, zirkunstantziek ez bait zuten beste aukerarik eskaintzen. Ekonomilariak ezinezko, zapuztaile eta lerdotzat ikusten zutena errealitateak berak derrigortu zuen. Gainera, gerrako urteetan, eskaintzaren gaineko eskari agregatuaren etengabeko demasia egon arren, horrelako kontrolak erabiliz, prezioak nahikoa egonkorrak egon ziren, hots, inflazioa ez zen agertu.

Arrazionamendua: esleipenaren arazoa

Arrazionamendua, edo eskatzaileen arteko ondasunen esleipena, lan desatsegina da, baina, halere, edozein

sistema ekonomikok burutu behar duena. Zeren gizarte guztietan, errealitatean jendearen nahiak, beharrianak eta premiak ez bait dira erabat eta osorik ase eta bete. Ohizko ekonomian, arrazionamendua ezarritako arau hertsien bitartez egin ohi da. Enda, kasta, etorki zein klase edo famili egoera edo beste zerbait delarik, arau horiek gizabanako batzuren eskubideak zuzentzen dituzte produktu ekonomikoan parte hartzeko.

Jarraian ikusiko dugu nola ohizko merkatu-gizartean ere arrazionamendua, nahitaez, prezio-mekanismo dela bide agertzen den.

Nola merkatuak berak arrazionatu egiten duen

Demagun hamar erosleko merkatua, bakoitzak ondasun baten unitate bat erosi nahian eta horretarako gai izanik, baina bakoitzak berari dagokion gehienezko prezio egoki desberdin bat edukiz. Demagun hamar hornitzaile ere badaudela, bakoitzak merkatuan ondasunaren unitate bat jarri nahian eta horretarako gai izanik, berriro bakoitzak prezio desberdinetan. (Ikus 1. irudia)

Prezioa (\$)	11	10	9	8	7	6	5	4	3	2	1
Goiko prezioan unitate bat eros- teko gai direnak	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Goiko prezioan unitate bat sal- tzeko gai direnak	10	9	8	7	6	5	4	3	2	1	0


1. irudia

Teologia ekonomikoak dioenez, gehieneko prezioak desberdinak izan daitezke jende desberdinak ondasun-rako nahi desberdinak dituelako edo errenta desberdinak dituelako. Ikusten denez, oreka-prezioa 6 dolarretan gertatzen da, zeren prezio horretan ondasunaren unitate bakoitzeko bost hornitzaile eta bost erosle egon behar dira.

Marraz dezagun irudi bat non zutabe bakoitzak pertsona bati bait dagokio. Zutabearen altuerak ondasunaren unitaterako pertsona bakoitzak pagatu nahi duen preziorik handiena adierazten du, edo saldu nahi duen preziorik txikiena. Merkatariak eskari eta eskaintza-possibilitateen neurrian lerrotatzen baditugu, merkatuak ondoko irudia bezela izango luke:

Beraz, merkatuak, oreka-prezioaren bitartez, esleitu egin ditu ondasunak erosle batzuren artean, beste batzuri debekatu egin dielarik parte hartzea. Kasu honetan merkatuak zenbait jende baztertzen du ekintza ekonomikotik.

Merkatuaren arrazionamendu-sistemak alde onak ditu arrazionamendu-funtzioari berari dagokionean. Arrazionamendu-txartelen ordean, berauen merkatu beltzekin edo bezeroen iladekin, prezio-sistemak inolako administrazio-tresnarik gabe funtzionatzen bait du. Beste aldetik, plangintzarako behar diren baliabideak eta energiak ez dira behar. Hala eta guztiz, merkatua itsu da. Hau da, bakarrik klase aberatsaren alde; funtzionatzen du errentagabekoen



2. Irudia

Oreka-prezioa edo gehiago pagatu nahi duten erosle guztiek, nahi dituzten ondasunak lor ditzakete. Halaber, oreka-prezioan edo gutiagokoan ondasuna horni dezaketen saltzaileek salmentak burutu ditzakete.

eta aberastasun gabekoen ez dute ezer lortzen. Merkatu-mekanismo hutsaren bidezko funtzionatzeak kale erdiko pobrezia onartzea esan nahi du.

Eskasaldiak


Zer esan nahi du errenta txikiko jendearentzat etxebizitza-eskasaldia dagoela esateak? Eguneroko hizkeran, errenta txikiko jendeak etxebizitza nahikoa ezin duela aurkitu esan nahi du. Hala ere, merkatu guztietan bete ez diren erosleak badaude. Esate baterako, gure lehen adibidean, 6 dolar pagatzeko prest ez dauden erosle guztiak. Esan nahi al du honek ondasun horren eskasaldia dagoenik?

Nahiz eta erosle eta saltzaileak merkatutik kanpo geratu, eskasaldi kontzeptua ez da erabiltzen horrelako egoeretan. Orduan, zer esan

nahi du eskasaldiak? Orohar, eskasaldia, merkatutik kanpo dagoen agentziaren batek, gobernuak kasu, prezioa oreka-prezioa baino beheragoan finkatzen dueneko egoerari dagokio.

Gasolinaren adibidea. Ondoko irudiak horrelako egoera erakusten du.

Epe laburreko gasolinaren hornikuntza finkatuta dago, HH kurba bertikalak erakusten duenez. Gasolinarako eskariak (EE) OH' kantitatea behar dela OP eguneko prezioan seinalatzen du. Ez dago horrenbeste gasolina, halere. HH' urritasuna dago, gasolinarako iladak sortuz.



3. Irudia.


Nola konpon daiteke urritasun hau? Dudarik gabe, oreka-maila batetarako prezioa altxatuz. Baina demagun ez dugula nahi petrolio-korporazioek prezioak altxa ditzaten, mozkin handiagoak egin ditzaten alegia. Zer egin daiteke? Demagun gobernuak gasolina-zerga bat (PP´) ezartzen duela, prezioak OP-tik OP´-ra gehituz. Prezio berri garaiago honetan eskatutako kantitatea OH da, eskaintza bera hain zuzen. Ez dago eskasaldirik, gasolinarako iladak desagertuko dira.

Zertan datza ekintza horren problema? Prezio garaiagoan, hain zuzen ere. Honek prezio-kontroletara garamatza artezki.

Prezio-kontrolak

Prezio-kontrolak, merkatu libre batek ezar zezakeen prezioen maila beheratu egiten dute.

Irudiak argi eta garbi erakusten du urritasunak esan nahi duela prezioak ez direla gai oreka-mailara heltzeko, eskatutako kantitatea hornitutakoa baino handiagoa delarik. Prezio-kontrolen bitartez merkatutik kanpo geratuko ziren zenbait eroslek merkatuan parte hartzen dute, nahiz eta beraien eskariak betetzeko nahikoa ondasun ez egon. Ondorioz, erosteko iladak agertzen dira edo eta ofizialki onartutako prezioetan baino prezio garaiagoetan saltzeko ondasunen merkatu beltz ez-legalak.



4. Irudia


Soberakinak

Soberakinarekin kontrakoa gertatzen da. Ondoko irudian oreka-preziotik gora finkatutako zoru-prezioa agertzen da. Gobernuak, esate baterako, merkatu-prezioen gainean uzta-prezioa mantentzen duenean agertzen da kasu hau.

Soberakin urritasunaren kontrakoa bera da. Orain hornitutako kantitatea eskatutakoa baino handiagoa da. (Ohar gaitezen ez dela esaten "hornikuntza eskaria baino handiagoa denik".) Merkatu libre batetan, prezioa jaitsi egingo litzateke bi kantitate horiek berdindu arte. Gobernuak ondasuna mantentzen segitzen badu, orduan industria pribatuek erositako kantitatea ez da izanen nekazariak eskainitakoa

bezain handia. Saldu ez diren kantitateak soberakina izanen dira, gobernuak erositakoa.

Beraz, **urritasun** eta **soberakin** kontzeptuak zeri dagozkio, alegia, eguneko prezioan merkatuan sartu nahi duten baina prezio-mekanismoak beraiek baztertu ez dituelako eraginkor eta ez-bete dauden saltzaile eta erosle direneko egoerari. Merkatu libreko saltzaile eta erosle ez-bete direneko egoera erabat desberdina da, zeren beroriek ezin bait dute eguneko prezioa jasan eta beraz bazterturik gelditzen bait dira. (Jende pobrea, 60 dolar liberako kabiak freskoa eskatzen ez duena, ez da kexatzen kabiak-eskasaldiaz. Kabiak freskoen prezioa gobernuak dekretuaz 1 dolar liberako ezarriko balu, laster izugarritzko "eskasaldia" egonen litzateke.)



5. Irudia

Prezio-arrazionamenduaren porrota

Zer gertatzen da kostu txikiko etxagintzarekin? Merkatu librearen arabera, etxeak erosi ezin dituzten pobreak eskari-kurbako eskuin puntako erosleak besterik ez dira. Etxagintzarako merkatutiko beraien bazterketa merkatu bakoitzean agertzen den arrazionamendu-prozesuaren adibide bat besterik ez da. Zenbait ondasun edo zerbitzu "eskari laburrean" daudela azpimarratzeak esan nahi du, ez dugula onartzen merkatu-mekanismoa bide aproposa denik arlo horietan baliabide eskasak esleitzeko. Horrek ez du esan nahi merkatua ez denik banatzaile efikaza. Atsegin ez duguna da merkatuaren arrazionamendu-prozesuaren emaitza. Zeren agertutako banaketak, efikaziari baino balio handiagoa ematen diegun beste interes publikoen beste standarren kontra jo bait du.

Baliabide ekonomikoen "mobilizazio partziala"

Pake-denboran helburu militarretarako baliabideen usadioak mugaturik izan beharko lukeenez gero², baliabideen usadioaren kontrol zuzenak ere, hau da, material, instalazio eta lanindarraren gaineko kontrolak ere mugatuta izan beharko luke.

(Mobilizazio osoa, gerra denboran kasu, produktu militarretarako prezio-esleipenerako ordekoa bada (Galbraith 1952, 4garren eta 5garren kapituluak)³, mobilizazio partzialare-

kin ez da holakorik gertatzen. Mobilizazio partzialarekin, edozein taldek bere errenta propiorako edo jabetza-eskubideetarako tratu ekita-tiboa eska dezake.)

Beraien erabilgarritasunagatik edo ez-erabilgarritasunagatik prezio-kontrolak aztertu gabe, zenbait ekonomilarik baztertu egin dituzte kontrolak txartzat hartuz⁴.

Prezio-kontrolak ez erabiltzeko, bi aitzaki nagusi egon dira: Lehena: Prezioen funtzio izendatzailea kontrolak ukatzen dutenean agertuko lirakeen kalteak⁵. Hau ez da fatala, halere. Bi kasu bereiz daitezke.

- (1a) Baliabideek, kontrolak ezarri gero, lehengo kanaleetara joaten segituko dute, kontrol aurreko esleipena satisfagarria izan baldin bada, satisfagarri izaten mantenduko da, gutienez epe baterako.
- (1b) Hala izan ez bada, prezio-kontrolak, baliabide-usadioaren gaineko kontrol laguntzailerik ezean, bat batean eramanen dute ondasunen produkzio eta banaketako nahaste-borraste batetara⁶.

(Bien bitartean, defentsa-usadio-rako baliabideen esleipena eginbeharra prezio-sistematik bazterturik izanen da. Prezio-kontrolak efikazia alokatiboa gutitzen badu, inflazio-arriskua beheratzen da. Izan ere, inflazioak usadio guztietatik baliabide gordegarrien debekuko beharra ezartzen bait du.)

Bigarrena: Estabilizazio politikoan aukera-hedapenaren estutze ez-beharrezkoa. Aukera bakar bat suposatzen da ondoko bi hauexen artean:

- (2a) Prezio egonkorretan eskaria eta eskaintzaren oreka bat gordetzeko politika bat, zeinak ez bait ditu erabiltzen ez prezio-kontrolak ez alokairu-kontrolak ere, baizik eta neurri fiskalak eta moneta-neurriak; eta
- (2b) Eskariaren gehitze inflazionista baztertzeko, kontrolak erabiltzeko politika.

Aukera, hala ere, litezkeen hiru politika hauexen artean da:

- (I) kontrolik gabeko oreka;
- (II) kontrolak mantendutako desoreka; eta
- (III) eskaria eta eskaintzaren oreka kontrolekin gehitua.

Baldin eta, zergen eta mailegatze pribatuaren murriztearen bidez, eskari pribatuaren agregatua erosteko ondasun eta zerbitzuen eskaintzarekin berdin mantentzen bada, honek prezio-egonkortasuna baieztuko du. (Prezio eta alokairu-kontrolak ezarriko dira baldin eta bakarrik gastu pribatuen murrizteak ez badira nahiko, eta beraien efektua, beraz, mugimendu inflazionista irekia izan litekeena deuseztatzeko bakarrik izanen da.)

Argudio honetan, inflazio deuseztatuaren arriskuak inflazio irekiarenekin bateraturik daude.

Inflazio irekiak eta deuseztatuak ez dute arrisku-magnitute bera adierazten. Inflazioa deuseztatzen duten kontrolek alokairu-, eta prezio-mugimenduak ere deuseztatzeko efektuak badauzkate, bai eta batak besteari eragiteko joera ere. Prezioak eta alokairuak kontrolatzen ez badira, aipatutako alokairuen eta prezioen arteko eragiketarako badago lekurik, eta inflazio-prozesuan garrantzi kritikoko arazoa da hori. Eskariaren demasia batetik (enplegu osoko kondizioetan, aurrekontu-defizit batetik, kasu) etorriko litzatekeen prezioetako gorantzako joera autoorekatua izanen litzateke, baldin eta prezio eta alokairuen arteko elkar-eragiketa gehiagorik ez balego. Gizarte modernoan, honelako prezio-gehitzeak alokairu-eskarietara darama nahitaez. Azken hauek, betetzekotan, zerera daramate, alde batetik alokairu-errentaren hedapenera eta are prezio handiagora produktu-merkatuetako hornikuntzetan, eta, bestetik, kostu-gehitzeen bidez, are prezio-gehitze handiagora. Prozesu honek mugagabe segitzeko, etengabeko eskariaren gehitzea behar du, edo aurrekontu-defizita edo etengabeko kontsumitzaile, eta negozio mailegatze, baina ez-aurreratzea. Baina enplegu osoan, kanpotiko horrelako gehitzearen eginkizuna katalitikoa da, ez kausala. Litekeena da gobernu-defizit erlatiboki tipirako, -bereziki baldin eta beraren eginkizunak bankuetatiko mailegatzea, beraz diru hornikuntza, gehitzea erraztu ditzaketan politikak deuseztatzen baditu-, alokairu eta prezio-gehitzeen txanda jarratzaile handiak katalizatzen.

Prezioak eta alokairuak efektiboki kontrolatzen badira, orduan prezio eta alokairuen arteko eragina ezin izan daiteke inflazio-mugimendu azeleratzailea. Baldin eta eskari agregatuak eskaintza gehitzen badu, erresultatzen den eskatze likidoen hedapenak –deuseztatutako eskariak– berdinduko du hasierako eskariaren demasia, edo behintzat magnitudean erlazonaturik egonen dira.

Eskariaren demasiaren sorburua aurrekontu-defizita baldin bada, deuseztatuko eskaria handiago edo tipiagoa izanen da defizita handiago edo tipiago den. Kasu bietan azken ondorioak mugatuagoak izanen dira oztopo gabeko alokairu-prezio espiralak dauzkanak baino. Izan ere, deuseztutako inflazioaren efektuak dagoen eskari-demasiarenak diren bitartean, inflazio irekiarenak geldiezinak dira.

Zirriborratutako prezio eta alokairuen arteko elkarren eraginak partzialki ekonomia mobilizatuaren politikari arrisku handia suposatzen dio. Mobilizazio partzialeko inguru batean, produkzioaren gehiengoa bilatuko da, seguraski. Ondorioz, eskaria, nahiz eta ez egon eskaintzarekiko demasian, nahikoa izanen da baliabideak erabat enplegaturik edukitzeko. Horrek esan nahi du, edozein produktu-merkatutan eta berorren kontrako lanindarrerako edo beste faktoretarako merkaturian eskaria ez-elastikoa izanen dela. Beste hitz batez esanda, lanindarraren ahalmenean eskariak presionatzen badu, alokairuak altxa daitezke emandako kasuan langabeziaren beldur serio

gabe. Baldin eta produktu-eskaria nahikoa gogorra bada, enpresariak lanindarra eta beste baliabideak aktiboki bilatzen dituztelarik, orduan produktu-prezioak altxa daitezke salmenta-bolumena gutitzeko beldur gabe. Salmentetan muga jartzen duena ez da prezioa, baizik eta dagoen prezio hornikuntza-erabilgarritasuna. Baldintza horietan ez dago gestiogileen eta sindikatu handien arteko interesen gatazka⁷. Bien interesak errekontziliatzen dira praktikan alokairu eta prezioen gehitzeen bidez.

Gestiogile/lanindar gatazkaren lagunarteko errekontziliazioaren antzeko horren posibilitatea, kontrolik ezean, handiagoa da gaur Bigarren Mundu-Gerran baino (Chandler 1977, Gordon et al. 1982). Gestio burokratikoaren –hots, gidatekno-burokraziaren– politika orokorra zerean datza, sindikatuen eskariei ahalik eta arinen eta era osoan betetzean eta gero produktuen beren prezioetan berreskuratzean. Horrela erresultatzen den inflazioa, gidatekno-burokraziarentzat, produkzioa etengabeki hedatzeko prezio bat da.

Eskaria erabat murrizten bada, alokairuetako eta prezioetako edozein gorantzako mugimenduk geldiune batetara ailegatu behar du punturen batetan. Prezio-gehitzeak, egitekotan, punturen batetan salmenten gutitzea ekarriko du –produktu-eskarian elastikotasuna berragertuko litzateke. Eta arrazoi horrengatik alokairu gehitzei aurre eginen zaie edo, baldin eta eskariak betetzen badira, enplegua gutituko da.

Horrelako politikak eskaria kontrolatzeko neurriak behar ditu. Gobernuaren lanabes normala, politika fiskala, hau da, gobernuaren beraren gastu osoaren gutitzea, praktika ezinezkoa da. Zeren egonkortasun-interesen izenean armetan gastatzeko dena ez bait da murrizteko gai. (Hau Keynesianismo militarra kontutan hartu gabe).

Derrigorrezko politikaren posibilitatea, halere, onartu behar da. Horrelako orekak, kontrolik gabe, –aipatutako lehen kasuan–, produkzioan zenbait sakrifizio egiteko nahia suposatzen du; bai eta, egonkortasun-interesaren izenean, gestigile/lanindar gatazka normalak onartzea ere, halaber ondoriozko behin-behineko lan-geldiketak ere. Enplegu osoko mailan eskaintza eta eskari agregatuaren arteko guti gorabeherako oreka ez da, berez, egonkortasunerako garantia. Baldin eta murrizte horiek efektibo izan badira, nolabait eskaria enplegu osoko mailatik behera gutitu behar dute –beroriek nahikoa gelditasuna sortu behar dute produktu- eta faktore-merkatuetan, eskaria ez dadin gehiago izan ez-elastikoa. Egonkortasuna irabazi behar da zenbait sakrifizioekin enpleguan eta produkzioan.

Beste aldetik, mobilizazio partzialak derrigorrezko egiten baldin badu baliabideen usadio osoa (eta baketsua), orduan alokairu eta prezioen kontrolerako badago aukera. Hala ere, kasu hori ez da hedatzen sistema desorekatuaren erabilera osoa justifikatzeko. Aitzitik,

badago arrazoi sendorik pentsatzeko alokairu eta prezioen kontrolek funtzio garrantzitsu eta akaso derrigorrezkoa bete beharko lituzketela eskari-
-eskaintzaren orekarako fokapen praktikorik hurbilenarekin.

Baliabideak partzialki bakarrik mobilizatzen direnean, badaude zenbait desabantail sistema desorekatua erabiltzeko. Hala nola:

- (a) Baliabideen gaineko kontrol zuzenak seguraski ez dira izanen aski gogor edo zabal. Honek erran nahi du eskari-demasiak errazki aurki ditzakeela kanalak non efektiboa izan bait daiteke, eta berarekin zenbait baliabide eramanen ditu.
- (b) Mobilizazio partzial mota horrek ez dauka amaitzeko eperik. Beraz ezin daiteke diru-
-eskariak ondasunek estal ditzaketelako promesik eman. Honek esan nahi du tolerantzi marjena⁸ nahikoa estua dela. Baldintza horietan sistema desorekatua erabiltzeak tolerantzi marjenaren estutze progresiboa ere esan nahi du, bai eta premia handiko egun posiblea ere.

Beraz, laburtzeko, alokairu eta prezioen kontrolak beharrezko dira seguraski mobilizazio partzialaren egoeran. Hauek, hala ere, eskaria eta eskaintzaren guti gorabeherako orekaren baldintzapean aplikatu beharko lirатеke. Oreka hori mantentzen duten politika fiskalaren eta moneta-politikaren neurrien gaineko

gehigarri dira kontrolok. (Beraien eginkizun espezifikoa, eta mugatua ere bai, prezioen eta alokairuen arteko elkar-eraginari aurre egitea da, produkzioa maximatzeko inperatiboek eguneko baliabideen usadio osoa, bereziki lanindarrarena, behar duten lekuetan).

Prezio eta alokairuen kontrolaren estrategia zentralaren gidalerroa

Mobilizazio partzialaren baldintzapean:

- (1) Kontrol horien funtzioa ekonomiak bere lanindarraren eguneko ahalmenean funtzionatzen duenean, prezioen eta alokairuen arteko elkar-eragina geldieraztea da;
- (2) Prezioen eta alokairuen elkarren arteko mugimendu horiek agertzen dira sindikatu sendoak produktu-merkatuetan leku berezia daukaten korporazioekin aritzen diren lekuetan;
- (3) Horrelako mugimenduak ez dira batere agertzen, kasu, nekazaritzan, non ez bait daude sindikatu sendoak eta non produktugileak ere ez bait dauka bere prezioen gaineko inongo botererik. (Nekazal prezioek, epe laburrean, kostu-indizeko aldaketei ez diete erantzunik ematen).

Beraz, guti goiti beheti, alokairu-prezioen arteko eragina arazoa da merkatu-mekanismoak funtzionatzen ez duen ekonomiaren partean, eta ez da

ia arazorik beraien produktuetan konkurrentzia hutsaren antzera aritzen diren industrietan.

Baldin eta kontrolen eginkizuna alokairu/prezioen arteko eragina geldieraztea bada, orduan, kontrolek merkatu ez-perfektuetan bakarrik daukate eginkizun garrantzitsua. Prezio kontrola errazten duten merkatu-inperfekzioek berek ematen dute kontrolek baztertzen duten alokairu/prezioen eraginerako lekua.

Inflazio-kontrol idealean, eskarian behar diren murrizteak gordetzen direnean, prezio-kontrolak merkatu ez-perfektuetan, non prezioak administratiboki ezarririk bait daude, mugaturik lirateke. Alokairu-kontrolak sindikatu handi eta sendoen tratuketa kolektiboaren bitartez ezarririk diren alokairuetara mugaturik lirateke. Horrela ezarrirako alokairu- eta prezio-kontrolak guti goiti beheti **ekonomiaren parte berean** aplikaturik izanen lirateke, zeren jeneralean sindikatu sendoak korporazio handiak dauden lekuetan bait daude. Konkurrentzia hutsaren antzeko merkatuetan eta ez-eraturako lanindar-merkatuetan, prezioen edo indizeen egonkortasuna eskariaren kontrolaren ondorioa izanen litzateke. Merkatuak oraindik funtzionatzen duen ekonomiaren parte horretan prezioak kontrol gabe geldituko lirateke. Parte honetan prezioak eskariak determinatzen dituzenez gero, baldin eta eskaria eskaintza erabilgarriarekin mugatzen bada eta horrela mantentzea itxaroten bada, orduan prezioek ez lukete agregatuan altxatzeko batere joerarik adieraziko⁹.

(Badago eginkizunik lanindarrari adierazteko zergatik finkatu behar diren alokairuak, nekazal prezioak bide zehiharkakotik kontrolatzen diren bitartean. Politika honek, behar den hedapenean, moneta-murritzteak eta murrizte fiskalak behar ditu eguneko prezioetan oreka izan dadin).

Prezio-kontrolen teoria baterantz

Teorian ez da inoiz dudatan jarri prezio-kontrolako autoritatearen abileziari buruz prezio finkoa mantentzeko, merkatu partikular batetan, baldin eta prezio-finkapenari arrazionamendua gehitzen bazaio, lehen ikusi dugun moduan. Arrazionamenduak, ongi manatuz gero, prezio finkatua erabilgarri den eskaria mugatzen du; honela, oreka-merkatu berezi eta egonkorra sortzen du.

Egun edozein gizarte industrialdutan ezagutzen den guztiz antolatutako ekonomiaren azpisisistema, hau da, korporazio handien menpeko den ekonomiaren partean, eskaria hein handi batez produktugileak berak kontrolatzen du. (Ekonomiaren parte honi, Bowles eta Edwards-ekin batera. **zentru-sistema** eritziko diogu). Kontrol honek arrazionamenduaren antzeko efektua dauka. Merkatu-mekanismoak oraindik funtzionatzen dueneko ekonomiaren beste partean, ez dago horrelako kontrolik. (Azpisisistema honi **periferia-sistema** deituko diogu¹⁰).

Erosle edo saltzaileen kopurua erlatiboki tipia denean, merkatua desagertzen da. Kasu horretan erosleak eta saltzaileak ez dira gehiago anonimoak, elkarrekin aritzen bait dira gizabanako edo indibiduo konkretu bezala. Ekonomiaren alde honetan prezio-finkapena arrazionamenduari dator. Errate baterako, gobernuak prezioak finkatzen dituenean, zentru-sistemako saltzaileengan legatu egiten du beraien bezeroen arrazionamenduaren erantzunkizuna, saltzaileok arrazionatzeko boterea daukatelarik.

Ikus ditzagun plangintzatuta dagoen azpisisteman bera kontrolatzeko gai diren bi ezaugarriak:

Prezio-eskaintza harremanaren arloan, prezioa gehitzearen, eta azken gehitze hori geldierazita baldin badago egonen litzatekeen ondasunen murriztearen arteko epe luzetxoak. Prezio-finkatzaileak ez du eduki beharko arazo seriorik bere prezio-maila mantentzeko, berak finkatutako prezioan eskaintza edo hornikuntza nahikoa denean. (Hauxe da, hain zuzen ere, Ipar Ameriketako egondako esperientzia Bigarren Mundu-Gerran (Galbraith 1952).

Prezio-aldaketak guti direnean eta merkatua oligopolistikoa denean, eskariaren ohizko aldaketak **ex hypothesi** egokitu behar zaizkio uneko prezioari. Ondorioa gehiegizko ahalmenaren marjena da. Inflazio-giroan, prezioak altxatzeko erabakia normalki ahalmen-demasia gehituz doan eskariak gainditzen duen momentuan baino lehenago hartu

behar da. Eskari-gehitzea aurrikusten bada, industriaren erreserba-ahalmena gai izanen da merkatuak hornitzeko, akaso epe luzerako.

Prezioek gastuak nahikoa marjenaz gainditzen dituzten egoeran ere, ez da batere segur hornikuntza eskukor izanen denik. Gehigarritzko negoziazioa beharrezkoa da eskaintza lortzeko, hots, eskaintza/prezioa kostuarekin harreman normalean gordetzeko. Negoziaketa hori bakarrik praktikoa da entpresen kopurua erlatiboki tipia den lekuan.

Beraz,

- (1) Prezio-kontrola teknikoki lanabes erabilgarria da plangintzatuta dagoen azpisistema ekonomikoan, hots, zentru-sisteman;
- (2) Ia konkurrentzia hutsa dagoen ekonomiaren azpisisteman, hots, periferia-sisteman, prezio-kontrola, eskaintzaren gaineko eskariaren gehitze mamitsuaren aurrean mantentzen bada, eskari hori gutitzeko prezio-kontrolari neurri formalak gehitu behar zaizkio: honek, orokorki, arrazionamendua esan nahi du.

Orduan, badaude merkatuak non prezioak finkatu bait daitezke eskaintzaren gaineko eskari gehigarri kontsideragarriaren aurrean, inolako arrazionamendu-kontrolik gabe. (Beste arazo bat zera da, prezio-kontrolen administrazio-problema. Zeren kontrolek erakunde berezia behar bait dute).

Prezio-kontrolak, nahiz eta ez den orokorki onartua oraindik, badauka eduki derrigorrezko lekua inflazioaren kontrako erremedioen farmakopeian. Nahiz eta egin behar dena gura ez, ulertu behar dugu zer egin behar den.

Oharrak

- (1) Sobietar Batasunean, 1981ean, 12 milioi produktu desberdin ekoiztu ziren. Produktu horien prezioak kontrolatzea ezinezkoa da, nahiz eta burokrazia izugarria egon. (Parentesi artean esan beharra dago troskystek ez dutela ideia batere burokraziari buruz).
- (2) Defentsak ez du esan nahi inperialismoa edo eta gastu militar ikaragarriak onartu behar direla. Keynesianismo militarri buruz, ikus Tobar-Arbulu 1988b. Edozein gizarte modernok, halere, onartzen du defentsa efektibo eta moderno beharrezko dela pakea matentzeko.
- (3) Gerra-denboran, mobilizazio osoa dela bide, gizabanakoen aukerak bazterturik gelditzen dira, gerra helburu arrakastatsura eramanez nahiz. Mobilizazio osoan, gobernuak erabaki behar du non eta nola erabili behar diren baliabide desberdinak (material, instalazio zein lanindarra). Mobilizazio osoaren helburua esleipen militar optimoa lortzean datza. Merkatuak ez du hori betetzen. Beraz, gobernuak berak egin behar.
- (4) Hala ere, gogoratu behar da zenbait estatutan, Estatu Batuetan kasu, inflazioa ez zela batere problemarik Bigarren Mundu-Gerran prezio-kontrolak erabili zirenean (Galbraith 1952).
- (5) Minimoan, prezio-kontrolak diru gastatzearekin zenbait arazo sortzen du; maximoan, eskasaldiak direla bide, kontsumitzeko gauza franko bazterten du.
- (6) Zenbait gauzatan emaitza gehiegi agertuko da eta bestetan emaitza gutiegi; baita leku ez aproposetan guztietatik ere.
- (7) Baieztapen hau ez da batere iraultzailea noski. Baina gizarte modernoan dagoen egoera erakusten du, ez egon behar lukeena. (Ikus Gordon et al. 1982.)
- (8) Tolerantzi marjina output agregatuaren adizioarekin koherente den eta egungo hornikuntzaren demasian den eskariaren bolumena da.
- (9) Ekonomiaren parte honetan ez dago prezio/kostu mugimenduaren barneko dinamika, ez eta langabezia ez dagoeneko eskarian ere.

Eskaria eta eskaintzaren marko orokorraren barruan ere, konkurrentziadun merkatu partikularretako garapenak efektu desorekatzaile larriak izan ditzake. Errate baterako, okela-eskariaren errenta-elastikotasuna oso garaia izan daiteke. Baldintza horietan, okela-prezio handiak espero daitezke, alokairu

egonkortasunaren gaineko efektuan dauzkaten kontrolak ez badaude. Eta produkzioko gehitze erantzulearen parte handi batek baliabideak hartuko ditu beste nekazal produktiotik, efektu potentzial larriekin elikaduran eta zuntzaren hornikuntzan. Horrelako oreka-egoera bereziekin espezifikoki aritu beharra dago; ez da suposatu behar zeharkako neurriak nahiko izanen direla. Nahiz eta konkurrenteki ekoiztutako produktuen prezioak finkaturik izan, sabaiak ez dira kontsideratu behar egonkortasun-ahaleginaren ardaztzat. Merkatu horietako helburuak, desorekaren arazo berezietatik kanpo, (kasu hauetan prezio-kontrolak pausoka joan behar du, produktu berezietarako eskaria kontrolatzeko), sabaiak presio ezean gordetzea da. Konpetentziadun merkatuetako inflazio-kontrolaren politikaren test arrakastatsua prezioak behintzat noizik behinka sabai-mailen pean egotea da. (Eskala garrantzitsuko edozein eskasaldiren agertzeak abisua izan beharko du. Merkatu ez-perfektuek ez dute behar horrelako politika, eta ez dute horrelako abisurik ematen).

Inflazio-kontrolaren estrategia orokorrean, konpetentziadun merkatuek zera esaten dute: eskaria hornikuntzarekin parekatzen den ala ez, mobilizazio partzialari egokitzen zaion egonkortasun-mota, agregatuan, lortzen den ala ez.

- (10) Beraz, gaur egungo ekonomia bi partetan banatzen da: batean enpresa erraldoiak daude; bestean enpresa tipiak (Galbraith 1967,1973; Bowles eta Edwards 1985)
- (11) Prezio-kontrolak askoz errazagoak dira zentru-sisteman periferia-sisteman baino, zentru-sistema saltzaile gutiko sistema delako, hain zuzen ere. Galbraith-ek idatzi zuenez (1952), "erraza da jadanik finkaturik dauden prezioak finkatzea."

Bibliografia

- AGANBEGYAN, A; *The Economic Challenge of Perestroika*, Indiana University Press, 1988.
- BARAN, P; *The political Economy of growth*. Monthly Review, New York, 1957.
- BARAN, P. & SWEEZY, P; *Monopoly Capital*, Monthly Review, New York, 1966.
- BOWLES, S. & EDWARDS, R; *Understanding Capitalism*, Harper & Row, New York, 1985.
- CHANDLER, A; *Visible Hand: The Managerial Revolution in American Business*, Harvard University Press, Cambridge, MA, 1977.
- GALBRAITH, J.K; *A Theory of Price Control*, Harvard University Press, Cambridge, MA, 1952.
- GALBRAITH, J.K; *The New Industrial State*, Houghton, New York: Houghton, 1967.
- GALBRAITH, J.K; *Economics and the Public Purpose*, New York: Houghton, 1973.
- GORBACHEV, M; *Perestroika: New Thinking for our Country and the World*, Harper & Row, London, 1987.
- GORDON, D. et al; *Segmented Work. Divided Workers*, Cambridge University Press, New York, 1982.
- HERMAN, E.S; *Corporate Control. Corporate Power*, Cambridge University Press, Cambridge, 1981.
- NOVE, A; *The Economics of Feasible Socialism*, Allen & Unwin, London, 1983.
- TOBAR-ARBULU, J; Langabezia eta inflazioaren kontrako zenbait neurri beharrezko, *Larrun* 6, 1988.
- TOBAR-ARBULU, J; Inperialismo eta armagintza, *Jakin*, 1988.
- TSURU, S. (ed.); *Has Capitalism Changed?* , Iwanami Shoten, Tokyo, 1961.